



EUSKAL HERRIKO  
LABORANTZA GANBARA

PRENTSA TXOSTENA

# ETXALDE IDEKIAK

**2021eko Apirilaren 7 et 13an**  
**Heleta & Itsasun**

Laborari batzuek beren atea idekitzen  
dituzte herritarreri eta prentsari



Apirilaren 7an eta 13an, Euskal Herriko Laborantza Ganbarak bi « etxalde ideki » antolatzen ditu Heleta eta Itsasun. Ekitaldi honek aurten osagarri krisiarengatik egin ezin izan den EHLG-ren urteurren-eguna ordezkatzeko du.

## Hitzordu tematikoak laborariekin

Bi hitzordu horiek publiko zabal bati idekitzen ditugu, EHLG-k laborantza herrikoia eta elikaduraren inguruan egiten dituen bi lan ardatz nagusi erakusteko.

Beñat Molimos eta Francis Poineau, kolehendakariak esplikatzeko dute : « Laborantza herrikoia haien etxaldeetan obrarazten duten laborariekin zuzenki trukatzeko da egun hauen helburua. Egundak hauek publiko zabal bati proposatu nahi ditugu, gure elkartearen urtemuga ospatzeko urtero errezebitzen dugun publikoaren gisakoa hots ! »

Etxalde baten giroan sartuz, errezebituko gaituzten laborariak beren lanbideaz, ibilbideaz eta hautuetaz mintzatzeko aukerak, giro goxo batean.

Osagarri egoera kondutan hartzea behartuak girela eta, lekuak 30 pertsoneri mugatzen ditugu bisitara. Maskara bisita denbora osoan soinean ukan behar da.

## Egitaraua

### **2021-eko apirilaren 7a, asteazkena, 14.30 – 17.00, Heleta**

Hesiekin, behiak eta laboraria pozik !

Ugo Arbelbide laborariaren etxaldearen bisita. Ugo 2019-an instalatu da, familiako etxaldean. *Blondes d'Aquitaine* arrazako behiak belarreen hazten ditu. Bere etxaldeko ateak idekiko dizkigu eta azaldu zergatik hesiak landatu dituen, negu honetan.

30 leku. Izena emaita beharrezko da. **Apirilaren 5eko berantetik** deitu behar da 05 59 37 18 82 zenbakira.

► *Eiherazabalia etxaldea, 64 640 Heleta*

### **2021-eko apirilaren 13a, asteartea, 14.30 – 17.00, Itsasu**

Instalazioa-transmisioa, lurralde bizi baten oinarriak

Aroztegia etxaldearen bisita. 3 laborarik ardi manex buru gorriak eta xerriak hazten dituzte eta barazki, fruitu eta Ezpeletako biperra ekoizten. Duela urte bat, bi kide berri sartu dira etxaldean erretreta hartu zuten bi laborari ordezkatzeko. Heien lekukotasunak entzunen ditugu.

30 leku. Izena emaita beharrezko da. **Apirilaren 9ko berantetik** deitu behar da 05 59 37 18 82 zenbakira.

► *Aroztegia etxaldea – Basaburu, 64 250 Itsasu*

Harremanak :

**Euskal Herriko Laborantza Ganbara**  
Zuentzat – 64 220 Ainiza Monjolose  
05 59 37 18 82

[laborantza.ganbara@ehlgbai.org](mailto:laborantza.ganbara@ehlgbai.org)  
[www.ehlgbai.org](http://www.ehlgbai.org)

[Youtube](#)  
[Facebook](#)